

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aintzane Agirre Urzelai

*Oñati,
Gipuzkoa
(1981)*

Aurkibidea



Biografia



Oñatin jaioa, berez kaletarra, Larraña auzoko Errekalde baserrian bizi da senarrarekin eta lau umeekin (bi neska eta bi mutiko). [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa. Aintzanez ez zuen etxean jaso, eta bere kabuz hasi zen erabiltzen. 10 urtez Villabonan bizi izandakoa, bertan hasi zen hika egiten, lankideekin. Eta orain Oñatiko erabiltzen hasi da. Elkarrizketa hika izan da (mintzapraktikaren parte gisa). Ingo Xonau! projektuko lantaldekoa da.

Zintak

ONA-277

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Idoia
- **Data:** 2019-03-06
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberría, Idoia

ONA-278

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Idoia
- **Data:** 2019-03-06
- **Iraupena:** 19 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Hikarekin zer harreman?

- **Erref:** ONA-277/003
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:05:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Etxean anaiek hika egiten diote elkarri, baina berari ez zion inork hika egin etxean. Villabonan bizi zenean, hika hizketan hasi zen Fleming

ikastetxeko lankide batekin. Gipuzkeraz egiten zuen han, eta hitanoa ere bertakoa.</p>

2. Villabonako hitanotik Oñatikora

- **Erref:** ONA-277/004
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:05:11. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Oñatikora hika oraintxe hasi da ikasten eta erabiltzen. Etxean ez diote hika egin izan; osabak eta aitak mutilei bai (bere senarrari bai), baina berari ez. Villabona ikasitakoa oñatikora jartzen saiatzen da, bere erara eta hanka sartuaz.</p>

3. Laguna duen emakume batek hika egiten dio

- **Erref:** ONA-277/006
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:07:53. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Badaude batzuek batzuetan hika egiten diotenak. Emakume batek hika egiten dio berari, baina alabari, berriz, ez.</p>

4. Ohiturak aldatzea ez da erraza

- **Erref:** ONA-277/008
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Nerea Agirrerekin (elkarrizketatua dago bera ere) hika egitea dauka orain erronka moduan, eskolan elkar ikusten dutenean. Ohiturak aldatzea ez da erraza. Bi alabei hika egiten ere hasi da.</p>

5. Hika gaizki egiteko askatasuna

- **Erref:** ONA-277/010
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:10:26. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Egunerokotasunean hika jardutea ez da erraza. Pertsona konkretuekin eta lana eginda lortzen dela dio. Konfiantza izan behar da gaizki egiteko, ikasten joan ahal izateko.</p>

6. Hika egiten hasteko prozesua

- **Erref:** ONA-277/011
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Villabonan egin zuen hika egiten hasteko prozesua. Hasierako zailtasunak aipatzen ditu. Egitura batzuk barneratu ahala, errazagoa da.</p>

7. Hikatertuliak

- **Erref:** ONA-277/012
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:14:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mintzapraktika garrantzitsua da eta hika egiteko ere hori behar da: hikatertuliak, hikapoteoak...</p>

8. Hitanoaren osasuna Oñatin

- **Erref:** ONA-277/014
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:15:08. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Nesken artean hitanoa galtzen joan da, eta mutilen artean parranda giroan erabiltzen dela uste du edo oso baserri eremuko jendeak. Bestela, ez du hain osasuntsu ikusten mutilena ere. Emakumeei lotsa handiagoa ematen die gaizki eaateko beldurrak mutilei baino.</p>

9. Hitanoa eta oñatiera eskoletan

- **Erref:** ONA-277/016
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:17:32. **Bukatu:** 00:19:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Eskoletan ez da hitanoa erakusten... erakustekotan oso gainetik. Irakasleek ez diote behar besteko baliorik ematen hitanoari eta Oñatiko euskalkiari ere ez. Idatzizko dena euskara batuan da. Irakasleek beraiek ere ez dituzte Oñatiko aditz-formak behar bezala menperatzen.</p>

10. Ikasleek gero eta euskara maila apalagoa

- **Erref:** ONA-277/017
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Batuarekin eta eskolan ez bada euskalkia erakusten, normala ez jakitea. Aintzaneren ustez, euskara batua ere ez dute menperatzen gaztetxoek. Arazo hortaz konturatuta daude irakasleak.

11. Ikasleek gero eta euskara maila apalagoa II

- **Erref:** ONA-277/019
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:22:08. **Bukatu:** 00:23:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaztelaniaren eragina kaltegarria da euskararentzat.

12. Hika zebilena, baserritarra

- **Erref:** ONA-277/020
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:23:44. **Bukatu:** 00:26:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Frankismo garaian erdararako joera nagusitu zen. Euskarazko liburuak debekatu zituzten. Zuka egiten zuena baino maila baxuagokoa izango zen hika zebilena: baserritarrak. Baserri munduko adinekoak konplexuak dituzte oraindik ere.</p>

13. Azalaren kolore beltzarana: baserritar kutsukoa

- **Erref:** ONA-277/021
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Baserritarrari burla egiten zioten. Baserritarrak beltzaran egoten ziren, soroan lanean zebiltzalako, eta aberatsek ez zuten eguzkirik hartzen zuri egoteko.

14. Baserriaren jakituria

- **Erref:** ONA-277/022
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:28:08. **Bukatu:** 00:30:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Baserriari eta baserritarrei buruzko ikuspegia aldatu egin da. Baserritarrak erakutsi du lurretik bizitzeak zer garrantzia duen. Baserritarrek jakituria handia izan dute beti, nahiz eta eskolara joateko aukera gutxi izan.

15. Zergatik joan da galtzen noka eta toka ez?

- **Erref:** ONA-277/024
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:32:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Lotsaren eraginez joan da galtzen noka: emakumeok konplexu gehiago dituzte. Emakumeen demostratu beharra. Bigarren mailan egon da beti emakumea.</p>

16. Noka konfiantzazko eremuetan bakarrik

- **Erref:** ONA-277/025
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:32:56. **Bukatu:** 00:36:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Sozializatzeke modua desberdina zen gizonena eta emakumeena, sasoi batean. Emakumeek talde txikietan hika egingo zutela uste du, konfiantzazko eremuetan, baina hortik kanpora ez. Kalera bizitzera joandakoan ere hitanoa baztertzen zuten. Hitanoa baserri munduan gorde da ondoen.</p>

17. Seme-alabei hika ez egitearen arrazoia

- **Erref:** ONA-277/027
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:36:36. **Bukatu:** 00:39:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Seme-alabei hitanoa ez transmititzearen arrazoia. Estatus kontua ikusten du Aintzanek: gutxiago izatearen pertzeptzioa. Gaur egun ondo ikusita dago, baina sasoi batean ez. Erabaki inkonszientea izan zela dirudi.</p>

18. Hikak ematen duena

- **Erref:** ONA-277/028
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:39:39. **Bukatu:** 00:41:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Hika egitea mutil gazteen artean errebeldiarekin lotzen dela uste du Aintzanek, eta maskulinitatearekin ere bai. Aintzanerentzat plazera da hika egitea. Alabek hika egitea oso polita izango litzakeela dio.</p>

19. Hikak ematen duena II

- **Erref:** ONA-277/030
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:41:38. **Bukatu:** 00:43:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa konfiantza giroan erabiltzen du, ez edozeinekin. Oso jende bereziarekin egiten du hika. Nahiko luke koadrilan hika egin ahal izatea.</p>

20. Noka nola berreskuratu

- **Erref:** ONA-277/031
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:43:23. **Bukatu:** 00:44:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Noka berreskuratzeko erabili egin behar da, beldur barik.</p>

21. Etxeko transmisioaren garrantzia

- **Erref:** ONA-277/033
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Etxetik jasotzea hitanoaren transmisioa, hori izango litzateke onena. Seme-alaba gazteak dituztenak egin dezakete hori. Ezin da karga guztia ikastetxeen gain ipini.</p>

22. Mutilak hika eta neskak erdaraz?

- **Erref:** ONA-277/034
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:45:51. **Bukatu:** 00:48:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Nerabezaroan mutilek etxetik kanpo ikasten dute hitanoa sarri: kalean. Neskek bitartean erdarara jotzen dutela uste du Aintzanek. Nola lortu neskak ere hitanora erakartzea?</p>

23. Noka ahalduntze tresna?

- **Erref:** ONA-277/035
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:48:53. **Bukatu:** 00:50:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Noka ikastea eta erabiltzea ahalduntze-prozesu moduan.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com